

# Euskararen bariazio sintaktikoaz lehen datuak

Lorea Unamuno, Ariane Ensunza, Jose Luis Ormaetxea, Aitor Iglesias, eta Gotzon Aurrekoetxea

Euskal Herriko Unibertsitatea  
EUDIA ikerketa-taldea

loreoun@yahoo.es, ariane.ensunza@gmail.com, txipi.ormatxea@ehu.es, txadonak@gmail.com,  
gotzon.aurrekoetxea@ehu.es

## Abstract

This is a study on syntactic variation in Basque from the geolinguistic point of view. For that purpose two syntactic maps are compared: the map from the BOURCIEZ project and that from the EAS project. Taking as a basis the dialectal variation among seventy-six localities, the investigation focuses on the geolinguistic differences within the older generation.

## Laburpena

Artikulu honetan euskararen bariazio sintaktikoa ikuspegi geolinguistikotik ikertzen da. Horretarako bi mapa sintaktiko konparatzen dira: BOURCIEZ proiektuko mapa sintaktikoa eta EAS proiektuko. Hirurogeita hamasei herritako bariazio dialektalean oinarrituta, helduen belaunaldiko desberdintasun geolinguistikoa da ikergai.

**Keywords:** syntax, syntactic map, sociolinguistic variation, geographic variation, geolinguistic point of view, diatopic differences

**Gako hitzak:** sintaxia, mapa sintaktikoa, bariazio soziolinguistikoa, bariazio sintaktikoa, bariazio geografikoa, ikuspegi geolinguistikoa, desberdintasun diatopikoa

## 1. Sarrera

Lan honetan BOURCIEZ (Aurrekoetxea, Videgain & Iglesias 2004, 2008) eta EAS (Aurrekoetxea & Ormaetxea 2006) proiektuen mapa sintaktikoen konparaketa eginez, euskararen bariazio sintaktikoa aztertu nahi da.

Kontuan eduki beharrekoa da BOURCIEZ eta EAS proiektuak ez direla garaikideak; BOURCIEZ proiektuak Edouard Bourciezek 1895 inguruan jasotako "Recueil des Idiomes de la Région de la Gasconne" bildumako Ipar Euskal Herriko euskal testuak ditu oinarri eta abiapuntu. Hauxe da ezagutzen den euskararen lehenengo mapa sintaktikoa. EAS proiektua, berriz, 2006an hasi zen bi belaunaldiren datuak biltzen, hizkuntzaren bariazio soziolinguistikoa ikertzea du helburu eta Euskal Herri osoko grabazioetan oinarritzen da.

Euskal dialektologia tradizionalak bariazio dialektalen ezagutza sakona lortzen lagundu du, baina sintaxia, esaterako, ez da hain xehe aztertu. Hala eta guztiz ere, badira sintaxizko ikerketa-proiektu garrantzitsuak, hala nola, BOURCIEZ, Euskal Herriko Hizkeren Atlas (EHHA), EAS eta Ikerbasque ikerketa-taldea egindako berariazko sintaxi-proiektua.

Ekarpen honetan Euskal Herriko datuak bildu dituen EAS proiektuko datu-baseaz baliatuko gara eta bi mapa

sintaktiko alderatuko ditugu, alegia, BOURCIEZena eta EASekoa.

## 2. Metodologia

EAS proiektua UPV-EHUK babestutako (UPV05/72) ikerketa-proiektuaren barnean kokatzen da eta EUDIA ikerketa-taldea aurrera daraman EDAK datu-basearen zati da.

Galdesortari eta erabilitako metodologiari buruzko ezaugarri nagusiak ondokoak dira:

Galdesorta bidezko datu-bilketa egin da; lexikoa (120 galdera), izen-morfologia (23), aditz-morfologia (39) eta sintaxiari (20) buruzko galderak biltzen dituen 202 galderako galdesorta erabili da.

Ikerketa-proiektu honetako berriemaileak 45-50 urte bitarteko gizonezkoak izan dira, herri bakoitzeko bakarra.

Datu-bilketa elkarrizketa gidatu bidez egin da, lekuko baimenarekin grabatu egin da eta hainbat bide erabili dira datuak lortzeko: galdera zuzenak, azalpenak, itzulpenak, eta abar.

Helburua erregistro informala, alegia, egunero etxean, kalean, lagunartean erabiltzen den hizkeraren datuak lortzea denez, horretara bideratu da ahalegina,

ongi azalduz zer espero dugun haiengandik. Badirudi lortu dela, oro har, xedatutakoa.

Orain arte ikerketa-taldeak argitaratu dituen lanetan herri bateko edo bi herritako aipatu ezaugarrien (lexikoa, izen-morfologia, aditz-morfologia eta sintaxiaren) bariazio soziolinguistikoa aztertu da: Ariztimuño (2010), Aurrekoetxea (2003, 2004, 2006, 2008a), Ezenarro (2008), Ormaetxea (2008, 2011), Santazilia (2009) eta Unamuno (2010).

Lan honetan, ordea, 76 herritako bariazio dialektala aztertuta, helduen hizkeraren desberdintasun geolinguistikoa aztertuko da, lurralde batetik besterako hizkuntza-aldaketa, horren arrazoiak eta herrialde guztien arteko konparaketei arreta berezia eskainiz. Beraz, ikerketa honetan bariazio sintaktikoa aztertzen da, ikuspegi geolinguistikotik. Azterketak, esan bezala, helduen belaunaldiko 76 herritako hitzunen hizkera konparatzen du; hortaz, desberdintasun diatopikoa hartzen da kontuan azterketa honen aldagai bakar gisa.


### 3. Datuen analisia

Orain arte proiektuaren nondik norakoak azaldu dira; atal honetan, berriz, emaitzak azaltzen dituzten mapa argigarriak aztertuko dira, hau da, datuak analizatuko dira.

Lan honetan erabili diren datuak 76 herritan bildutako gizonezko helduei dagozkie, beraz, mapetan azaltzen den bariazioa, bariazioa geografikoa da. Esan bezala, ezaugarri sintaktikoei dagokienez, hoguei ezaugarri bildu eta aztertu ditugu; ikerketa honetan, ordea, ezaugarri sintaktiko adierazgarrienak aipatuko ditugu, ez guztiak.

Ondoren aztertuko ditugun mapen helburua ezaugarrien banaketa espazioan ezagutzea da. Mapak Goebel irakasleak sortutako VDM programa erabiliz egin direla aipatu nahi genuke.

#### 3.1. Zenbatzaile zehaztugabea eta aditz-komuntadura singular edo pluralean



1. mapa: Zenbatzaile zehaztugabea eta aditz-komuntadura (asko + aditza)

Lehen mapa honetan zenbatzaile zehaztugabea eta aditz-komuntaduraren banaketa ikus daiteke.

Mapa honen helburua aditza objektuarekin, hau da, *asko* zenbatzaile zehaztugabearekin komuntaduran singularrean edo pluralean dagoen ikustea da.


Informazio hau lortzeko lekukoari eman zaion esaldia pluralean izan da, gaztelaniaz zein frantsesez. Dakigun bezala, euskaraz bi aukera daude hori adierazteko, eta mapak argi erakusten dizkigu biak.

Mapako eremu berde argietan objektuaren (zenbatzaile zehaztugabearen) eta aditzaren arteko komuntadura singularrean egiten da. Komuntadura mota hau ipar-ekialdeko herrietan ohikoa da, mapan ikus daiteke, baina komuntadura singularrean egiten duten herriak hego-mendebaldean ere aurkitu daitezke.

Bestalde, mapako eremu berde ilunetan komuntadura pluralean egiten da. Datuen arabera, 76 herritatik 55 herritan komuntadura pluralean dugu; beraz, esan daiteke euskaraz joera orokorra pluralean egitea dela mapa honetako komuntadura, hau da, zenbatzaile zehaztugabearen eta aditzaren artekoa.

Aipatu beharra dago datu-basea osatzen dihardugula; hortaz, oraindik ez dago zuriz ikusten diren eremuetako herrietako informaziorik.

#### 3.2. Zenbatzaile zehaztua eta aditz-komuntadura singular eta pluralean



2. mapa: Zenbatzaile zehaztua eta aditz-komuntadura (hiru + aditza)


Bigarren mapa honen helburua, berriz, aditza objektuarekin, *hiru* zenbatzaile zehaztuarekin, ez zehaztugabearekin, komuntaduran singularrean edo pluralean dagoen ikustea da.

Zenbatzaile zehaztugabearekin bezala (ikus 1. mapa), zenbatzaile zehaztuarekin ere euskaraz bi aukera ditugu, singularrean edo pluralean, aditzarekin komuntadura egiteko.

Lehenengo maparekin konparatuz, mapa honetan ikus daitekeena honako hau da, alegia, objektua zenbatzaile zehaztua denean aditzarekin komuntadura singularrean egiten duten herri gutxiago daudela. Objektua zenbatzaile zehaztua denean aditz-komuntadura singularrean egiten duten herriek (ikus 2.

mapa) objektua zenbatzaile zehaztugabea denean ere aditz-komuntadura singularrean egiten dute (ikus 1. mapa).

### 3.3. Gogoratu aditzaren objektua




3. mapa: Gogoratu aditzaren objektua (gogoratu + soziatiboa / instrumentala / beste)

Mapa honen helburua *gogoratu* aditzaren osagarriak zer motatako deklinabide-marka duen ikustea da.

Euskaraz aukera asko daude, baina erabilienak izena soziatibo edo instrumental kasuan daramatenak dira.

Soziatibo kasua mendebaldean dela erabiliena ikus daiteke; instrumentala, aldiz, ekialdean.

### 3.4. Galdera-marka morfologikoak




4. mapa: Galdera-marka morfologikoak (al / -a / Ø)

Mapa honen helburua bai/ez galderen marka morfologikoa zein den ikustea da.

Bai/ez galderak egiteko hiru marka morfologiko desberdin ditugu: lehenengoa *al* marka dugu, eta aditz nagusi eta laguntzailearen artean eransten da (*zure laguna etorri al da?*); bigarrena *-a* atzizkia da, eta aditz laguntzaileari eransten zaio (*zure laguna jinen da?*); hirugarrena, aldiz, *zero* marka da, ez dugu ezelako marka morfologikorik (*zure laguna etorri da?*).

Mapan ikus daiteke bai/ez galderak marka morfologiko gabe egiteko joera handia dagoela, erreparatu eremu horia. Erdigunean, eremu berdean, *al* marka soilik erabiltzen dela baieztatu daiteke, eta ekialdeko zenbait herrialdetan, eremu urdinean, *-a* atzizkia erabiltzen da.

### 3.5. Izan eta egon aditzak




5. mapa: Izan eta egon aditzak

Ekintza jokatuarekin sarrien erabiltzen den aditza zein den jakitea da mapa honen helburua. Aukera handia dugu euskaraz, *egon*, *izan*, *ibili* eta *eduki* aditzak erabil baitaitezke.

Mendebalde eta erdialdeko aldaerek, eremu laranja, ekintza jokatu adierazteko *egon* aditza darabilte. Ekialdeko aldaeretan *izan* aditza da nagusi, eremu berdea, eta kasuren batean *eduki*, eremu urdina.

### 3.6. Egitura progresiboa eta mugimenduzko aditza




6. mapa: Egitura progresiboa eta mugimenduzko aditza (Ari / ibili / egon)

6. mapa honetan aditza mugimenduzkoa denean egitura progresiboa nola sortzen den aztertzen da. 7.ean egitura progresiboa nola sortzen den aditza estatikoa denean.

Mugimenduzko aditza dagoenean egitura progresiboa egiteko aukera asko dago. Erdigune eta ekialdeko herrialdeetako egiturarik erabiliena, eremu

horia, *ari izan* aditza da. Mendebaldean, bi egitura argi ikus daitezke progresiboa egiterakoan: *egon* aditzarekin, eremu berde argia, edo *ibili* aditzarekin, eremu berde iluna.

### 3.7. Egitura progresiboa eta aditz estatikoa




7. mapa: Egitura progresiboa eta aditz estatikoa (Ari / ibili / egon / jardun)

7. honetan aditza estatikoa denean egitura progresiboa nola sortzen den aztertzen da.

Bi mapetan erreparatuz gero (ikus 6. eta 7. mapak), banaketa antzekoa dela ikus daiteke.

### 3.8. Lagundu aditzaren aditz laguntzailea




8. mapa: *Lagundu* aditzaren aditz laguntzailea (Nor-Nori-Nork / Nor-Nork)

*Lagundu* aditz nagusiarekin erabiltzen den aditz laguntzailea zein den ezagutu nahi da. Euskaraz badakigu datiboa ez dela soilik izenari kasu-marka erantsita adierazten; aditz laguntzaileari erantsita ere adierazten da.

*Lagundu* aditzarekin posibilitate bi ditugu: bata datiboa erabiliz eta bestea absolutiboa erabiliz. Mapan ikus daiteke aldaera gehienek darabilten egitura datiboa dela, eremu berdea, baina absolutiboa darabilen eremu koherentea ere ikus daiteke ekialdean.

### 3.9. Ikusi aditzaren aditz laguntzailea




9. mapa: *Ikusi* aditzaren aditz laguntzailea

Honako mapa honetan *ikusi* aditzaren aditz laguntzailea zein den erakutsi nahi da.

Aditz honen formarik erabiliena absolutibo forma da, Nor-Nork, herri gehienetan ageri dena. Hala eta guztiz ere, zenbait herritako lekuko helduek datibo marka darabilte, eremu horia eta urdina, *ikusi* aditzaren aditz laguntzaile.

### 3.10. EAS mapa sintaktikoa




10. mapa: EAS mapa sintaktikoa

10. honetan mapa guztietako datu guztiak adierazita daude. Hiru multzo egitea erabaki da, baina ezkerrean dagoen dendrogramako goitik beherako barra mugitzen bada, multzo gehiago edo gutxiago egin daitezke.

Mapa sintaktikoan argi ikus daiteke aldaeren bereizketa koherentea, Euskal Herriko eremu geografikoarekin bat datorrena.

### 3.11. BOURCIEZ mapa sintaktikoa



11. mapa: BOURCIEZ mapa sintaktikoa

Aurrekoetxeak 2008an metodo berbera erabiliz baina Bourciez (1895) proiektuko datuekin argitaratutako BOURCIEZ mapa sintaktiko honetan, berriz, aldaeren bereizketa inkoherentea da. Honako mapa honek erakusten digu ez dagoela eremu dialektal koherenterik; EAS mapa sintaktikoan, 9. mapan, ordea, alderantzizkoa ondorioztatu dugu, alegia, badela eremu dialektal koherentea.

Dena den, kontuan izan behar da BOURCIEZ proiektuak Ipar Euskal Herriko aldaeren datuak biltzen dituela, EAS proiektuak, berriz, euskara hitz egiten den eremuetakoak; horixe da mapa bien arteko desberdintasun nagusia: BOURCIEZ mapa sintaktikoko (11. mapa) eremu dialektal inkoherentea eta EAS mapa sintaktikoko (10. mapa) eremu dialektal koherentea.

### 4. Ondorioak

Ikerketa-proiektu honetako emaitzak neurgarriak direnez, lehenengoz egin da estatistika darabilen sailkapen sintaktikoa.

Bai datuetan bai prozedura eta metodologian oso desberdinak dira orain arteko euskalki banaketak eta hemen aurkezten den sailkapena. Sailkapen hau ez dator bat orain arteko sailkapen dialektalekin. Bat ez etortzearen arrazoiatarikoak izan daitezke aurreko sailkapenetan sintaxiari garrantzirik eman ez izana edo erabilitako metodologia bera.

Honetan estatistika deskribatzailea erabili da eta desberdintasun linguistikoko estatistikoki neurtu dira mapetan txertatu aurretik. Emaitza zera izan da, hiru multzo koherente desberdintzea: mendebaldekoa, erdialdekoa eta ekialdekoa.

Euskararen hizkeren eta euskalkien sailkapen doituagoa lortze aldera, etorkizuneko zeregina hasitako bidea datu ghiagoz hornitzea da.

### 5. Bibliografia

- Ariztimuño, B., 2010: "Tolosako eta Ataungo hizkerak: hizkuntz bariazioa eta konbergentzia-joerak", *Uztaro* 72, 79-96.
- Aurrekoetxea, G., 2003: "Euskalkiak estandarren uholdepean (Arratiako kasua)", in Mendebalde Kultura Alkartea, *Ahozkotasuna aztergai*, 167-177.
- \_\_\_\_\_, 2004: "Estandar eta dialektoen arteko bateratze-joerak (ikuspuntu teorikotik begirada bat)" *Uztaro*, 50, 45-57.
- \_\_\_\_\_, 2006: "Hizkuntza estandarren eta dialektoen arteko bateratze joerak", *ASJU* XL:1-2, 133-160.
- \_\_\_\_\_, 2007: "Grammatical and Lexical Variation in the Basque Language", *Linguistica Atlantica* Vol 27-28 (2006-2007), 15-20.
- \_\_\_\_\_, 2008a: "Bariazio soziolinguistikoa Dimako euskararen", *Euskalingua* 12, 17-26 [www.mendebalde.com].
- \_\_\_\_\_, 2008b: "Different patterns of geolinguistic structure", in Blaikner-Hohenwart, G. / E. Bortolotti / R. Dranceschini / E. Lörincz et al. (eds.), *Ladinometria. Festschrift für Hans Goebel zum 65. Geburtstag*, Universität Salzburg / Freie Universität Bozen..., Salzburg, 9-18
- \_\_\_\_\_, Videgain, Ch. & Iglesias, A., 2004: *Bourciez Bildumako Euskal Atlas (BBEA-2): 1. Lexikoa*, *ASJU* 38-2.
- \_\_\_\_\_, & Ormaetxea J. L., 2006: "Euskararen atlas sozio-geolinguistikoa ikerketa-proiektua", *Euskalingua* 9, 157-163 [www.mendebalde.com].
- \_\_\_\_\_, Videgain, Ch. & Iglesias, A., 2008: *Bourciez Bildumako Euskal Atlas (BBEA-2): 2. Gramatika*, *ASJU* 39-1 (2005) [ed. 2008].
- \_\_\_\_\_, Sánchez, J. & Odriozola, I., 2009: *EDAK: A Corpus to Analyse Linguistic Variation. A Survey on Corpus-based Research Panorama de investigaciones basadas en corpus*. Ed. Pascual Cantos Gómez / Antonio Sánchez Pérez. Murcia: Asociación Española de Lingüística del Corpus. 489-503.
- Ettxepare, R., 2008: 'On the uses of syntactic atlases', *Tinta. E-journal of Hispanic and Lusophone Studies*. Department of Hispanic and Portuguese Studies. Santa Barbara: University of California Santa Barbara 8(2), 1-24.
- Ezenarro, A., 2008: "Etxebarria eta Bolibarko bariazio linguistikoa", *Uztaro* 67, 59-84.
- Ormaetxea, J. L., 2008: "Otxandioko hizkera: adinaren araberako bariazioa", *Fontes Linguae Vasconum* 108, 249-262.
- \_\_\_\_\_, 2011: "Apparent time variation in Basque: variation in Aramaio and Otxandio", *Dialectologia* 6.
- Santazilia, E., 2009: "Luzaideko hizkuntz bariazioa", *Fontes Linguae Vasconum* 111, 219-248.
- Unamuno, L., 2010: "Adinaren araberako bariazioa Gizaburuagako hizkeran", *Euskalingua* 16, 41-48 [www.mendebalde.com].